

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2022ko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Nik, Erika Letamendi Hurtadok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut: 2022ko irailaren 20tik aurrera ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2022ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2022ko irailaren 20tik urriaren 20ra.

B) Betearazte aldia: 2022ko urriaren 21etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B) Bankuetan ez helbideratutako ordainketak:

Ordainketa tokiak:

– Kutxabanken bulegoetan.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian (www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento; Nire ordainketa).

III. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Donemiliagako udaletxean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2022ko irailaren 13a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO